



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONBOIA

Nori zuzenduak?

Graduko ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten **tronboi** ikasleei.

Sarrera probak 2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Orientazio Jardunaldi honek bi atal ezberdin izango ditu eta erabat **online** egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2021eko martxoaren 21ean** amaituko da.

Jardunaldien helburua

Tronboian Interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei orientazioa eta informazioa luzatzea: sarrera proben egitura, sarrera probatan eskatzen den maila eta erreperitorio egokia.

Jardunaldiaren egitura

Bilera informatibo orokorra

Martxoak 26, ostirala, 13.00etan

Ordu beteko bilera informatiboan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak,osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak.

Espezialitateko irakasleekin saioak

REAL, Juan

Martxoak 29, astelehena, 17:00etan

Vicente Boix eta José Manuel Sánchez irakasleek ere parte hartuko dute

- Graduko ikasketetan sartzeko probetan eskatzen den maila eta erreperitorioaren inguruko aholkuak.
- Proba instrumentalaren inguruko orientazio zehatza.
- Irakasleekin saio praktikoa
- Irakasleen eskutik arreta pertsonalizatua
- Topaketaren iraupena: bi ordu

Izena ematen dutenek esteka bat jasoko dute online saio bakoitzaren bezperan.

Tronboi jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Rodolfo Epelde Haize eta Perkusio instrumentuen departamentuko buruarekin: **repelde@musikene.eus**